13/2026 Irizpena

FAren proiektua, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, Hezkuntza Sailaren eta toki-erakundeen artean lankidetza-hitzarmenak izenpetzeko oinarriak ezartzen dira, udal-titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak 2026ko urriaren 21ean onetsia.

Alicia Ruiz Oria
Lehendakaria

Francisco Javier Martinez Domingo
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria.HERRIKOA

Sonia García Cifuentes
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Arantxa Ruiz Vidorreta
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria./STEILAS/

D. Eduardo Piquer Lapuerta
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria/ ANPE

D. Juan Mendizabal Olaizola
Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria /ANEG-FERE.

Dña. María Teresa Módol Betriu
Ikasleen Gurasoen Elkarteen. CONCAPA

13/2026 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak, 2026ko urriaren 21ean egindako bilkuran, bazterrean zerrendatutako pertsonak bertaratu zirelarik, aho batez onartu du 13/2026 Irizpena. FAren proiektua, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, Hezkuntza Sailaren eta toki-erakundeen artean lankidetza-hitzarmenak izenpetzeko oinarriak ezartzen dira, udal-titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko.

.

1.- ARAU-AURREKARIAK

- 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza-edukiak ezartzen dituena.

- 79/2012 Foru Agindua, abuztuaren 27koa, Hezkuntzako kontseilariarena, Hezkuntza Departamentuaren eta toki-erakundeen artean lankidetza-hitzarmenak izenpetzeko oinarriak ezartzen dituena, udal-titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko.

2.- ARAUAREN JUSTIFIKAZIOA

Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duenak eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta bertako hezkuntza-edukiak ezartzen dituenak, ezartzen du Haur Eskolak Hezkuntza Departamentuaren eta interesa duten toki-erakundeen artean hitzarmenak sinatuz sortuko direla, eta hitzarmen horietan ezarriko dela, hala badagokio, finantzaketa-araubidea.
Hezkuntza Sailak udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako ikastetxeen kudeaketaren finantzaketan parte hartzen du lankidetza-hitzarmenak sinatuz. Diruz lagundu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartzen da Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindua, udal-titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa

finantzatzeko Hezkuntza Departamentuaren eta toki-erakundeen artean lankidetza-hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezartzen dituena.

Laguntzako hezkuntza-langileen gastuak eta jantokiko laguntzaileen gastuak diruz laguntzeko moduko gastutzat jo direnez, bidezkoa da Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduan ezarritako hitzarmenak izenpetzeko oinarriak aldatzea.

Egokitzat jotzen da, halaber, ikasturtearen hasieran aurreikusitako dirulaguntzaren zenbatekoa aldatzeko aukera ematea, abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduaren 4.6 artikuluan agertzen diren arrazoiengatik, edozein adinetako unitateak aktibatzea (ez soilik bularreko haurrenak) eta hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrentzat epemugarik gabeko hezitzaileak esleitzea barne hartuta, hori guztia aurrekontu-erabilgarritasunaren baldintzapean.

Era berean, egokitzat jotzen da 5. artikuluko 2. puntua kentzea, eta jantoki-zerbitzuaren gastuagatiko dirulaguntza jasotzeko eskubidea ematea zerbitzua eskaintzen duten ikastetxeei, zerbitzua erabiltzen duten haurren kopurua edozein dela ere.

Bestalde, 79/2012 Foru Aginduaren eranskinean, gehienez 12 unitate funtzionamenduan dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko moduluak zehazten dira. Gaur egun baimendutako unitate gehiago dituzten haur-eskolak daudenez, finantzaketa-modulu berriak sartu behar dira, eta guztiak eguneratu.

3.- FORU AGINDUAREN ZIRRIBORROAREN DESKRIBAPENA

Foru Aginduaren proiektu honen testua honela dago egituratuta:

Artikulu bakarra, honako hauek aldatzen dituena:

2. artikuluko 1. puntua.

• Kendu egiten da 2. artikuluko 2. puntua.

• Aldatu egiten da 3. artikuluko 1. puntua.

• Aldatu egiten da 4. artikuluko 1. puntua.

• Aldatu egiten da 4. artikuluko 6. puntua.

• Aldatu egiten da 5. artikuluko 1. puntua.

• Kendu egiten da 5. artikuluko 2. puntua.

ERANSKINA, finantzaketa-moduluekin.

Azken xedapenetatik lehena.

Azken xedapenetatik bigarrena.

4.- FORU DEKRETU PROIEKTUAREN TESTUARI BURUZKO BESTE GAI BATZUK

Proiektuarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu dira: memoria arauemailea, ekonomikoa, justifikaziozkoa, antolamenduzkoa, generoaren araberako eraginari buruzko txostena, sexu-orientazioagatiko eraginari buruzkoa, irisgarritasunaren eta desgaitasunaren gaineko eraginari buruzkoa, administrazio-kargei buruzko txostena, klima-inpaktuari buruzkoa eta haur eta nerabeen gaineko eraginari buruzko txostena.

5. IRADOKIZUNAK ETA OHARRAK

Nafarroako Eskola Kontseiluak egokitzat jotzen du Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen arteko lankidetza-hitzarmenak izenpetzeko oinarriak ezartzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindua aldatzen duen FAren proiektuaren proposamena.

Iruñean, 2026ko urriaren 26an

Lehendakaria
Alicia Ruiz Oria

Idazkaria
Sonia Soret Eguiluz

GO. SR. NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA